tolosaldeko eta leitzaldeko

hitza

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▸ Asteazkena ▸ 2007-02-28 ▸ V. urtea ▸ 1.100. zenbakia ▸ www.tolosaldekohitza.info

ANOETA ▸

Txartel Elektronikoa abian

Administrazioekin harremak burutzeko aukera ematen du ▸ 4

169 bazkide gehiago lortu ditu 2006an Ibarrako liburutegiak

IBARRA ▸ Guztira 668 irakurle txartel daude eta 12.251 mailegu egin dituzte urte guztian zehar

BERRIKUNTZAK ▸ Bloga eta entzunezko liburuak barneratu ditu, DVD, CD eta liburuekin batera ▸ 6

TOLOSA ▸

Saharari elkartasuna, errepublikaren 31. urteurrenean

Plaka bat ipini zuten atzo goizean Emeterio Arrese plazan, Bildarratz, Trapero eta Bafadi bertan zirela ▸ 3

Ekitaldiaren une bat. E. EZEIZA

AMEZKETA ▸

Korrikaren aldeko taldearen bila ▸ 5

HITZA

Zuhaitz zaharrek ere etorkizuna izan dezaten

LEITZA ▸ Zuhaitz zaharrak nola kimatzen dituzten ikusteko bai eta ikasteko ere ingeles talde bat izan da herrian ▸ 7

hitza Harpidedunen txokoa

HITZAko zozketaren 2 harpidedun irabazleak hauek dira:

- Geno Otamendi Zubeldia (Alegia)
- Amaia Ramiro Amundarain (Ikaztegieta)

Honekin ziber-ileapaindegiko talde sortzaileak aholkatu eta proposaturiko zerbitzu osoa (kolore, dizkira, forma, mozketa, orrazkera) + zure ileak behar duen tratamendurako produktua

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

TOLOSA ▸ PILOTA

Hori da sasoia!

‘Emakumea pilotari’ egitasmoaren barruan hamabi emakume biltzen dira astearte goizero Beotibarren pilotan jokatuz ondo pasatzera

Emakumea pilotari egitasmoko parte-hartzaileak astearteetako saio batean . J. GOIKOETXEA

Adina ez da oztopo. J.G.

JULEN GOIKOETXEA

Neguko astearte goiz bat izanagatik ez dira ohean geratu eta goizeko bederatzietarako hantxe dira Beotibar pilotalekuan pala eskuan hartu eta hotza uxatzeko prest. *Emakumea Pilotari* proiektuaren barruan antolaturiko ikastaroan parte hartzen ari diren emakumeak dira eta Naroa Epelde koordinatzailearen aginduei jarraituz beroketa ariketak egin dituzte pilota astintzen hasi aurretik. Egin beharrekoa hori ere, gero ezusteko lesioak ekiditeko. Hamaika emakume dira, 25 urtetik gorakoak eta asteartero goizeko bederatzietatik hamarretara aritzen dira.

Urtarrileko bigarren astean hasi ziren ikastaroarekin. Aurrez aipatu bezala, *Emakumea Pilotari* egitasmoaren barruan aurkitzen da eta hiru hilabeteko iraupena izango du; beraz, martxoaren erdialdera amaituko da. Egitasmoa, Gipuzkoako Pilota Federazioaren ekimenez sortua izan da eta Diputazioaren babesarekin hainbat udalerritan jarri dituzte proiektuak abian. Esan behar da hainbat atal ezberdin dituela aipatu egitasmoak. Alde batetik atal eskolarra dago, bestetik federatua eta azkenik partaidetza atala dago. Azken horretan aurkitzen da Tolosako emakumeen ikastaroa.

Behin beroketa amaituta, palak eskuan hartzeko garaia da. Naroa Epeldek hiru lagun errebotean jarri ditu, beste bi ezker paretean eta azkenik, sei laguneko taldea frontisean ari da. Hemen ez dago lehiarik. Helburua ondo pasatzea da eta hori horrela dela baieztatzen dute pilotalekuan entzuten diren barre algarek. Hutsa eginez gero ez du inork pala harrika botatzen; hemen guztiek barre egiten dute.

Emakumeak gustura

Ikastaroan parte hartzen ari direnei esperientziari buruzko balorazioa egiteko eskatuta, guztiak bat etorri dira erantzuna ematerako orduan. «Oso gustura» ari direla adierazi dute eta taldean dagoen giroa bikaina dela gaineratu dute. Hala ere, badute pena sortarazten dien zerbait: ikastaroaren iraupena. Izan ere, martxoan amaitu egingo da eta beraiek gehiago jarraitu nahi dute. Naroa Epeldek ordea, zaila izango dela dio beste herrietan ere ikastaroa eskaintzeko asmoa baitago.

Ikastaroan parte hartzera zerk bultzatu zituen ere galdetu die HITZAk emakumeei. Batzuk diote txikitan kirola egiteko aukerarik ez zutela izan eta orain astia eta gogoa dutenez aprobetxatzen ari direla. Beste alde batetik, betidanik kirola egin dutenen kasua dago. Hauetariko askok kirodegian jakin zuten ikastaroa martxan jarriko zela eta ez zuten bi aldiz pentsatu.

Emakume hauen sasoia eta gogoa ikusita, bat baino gehiago harrituta geratuko zen ziurrenik. Horrelako kasuak ikusita garbi geratzen da kirola egiteko eta ondo pasatzeko ez dagoela adin mugarik eta beraz ea adibide honekin emakume gazteek pilotarako afizioa hartzen duten.

NAROA EPELDE ▸ PROIEKTUAREN KOORDINATZAILEA

«Beraiek nahi dutelako etortzen dira eta horrek lana errazten dit»

Naroa Epelde bergararra da *Emakumea Pilotari* egitasmoko koordinatzailea. Proiektua martxoan amaituko dela eta, balorazioekin hasteko goizegi dela dio baina Tolosako emakumeen erantzuna ona izan dela aipatu du.

Zer egiten duzue astearteroko saioetan?

Daukagun orduari ahalik eta zuku gehien ateratzen saiatzen gara. Taldeetan banatzen gara eta talde bakoitza pilotalekuko zati ezberdinetan aritzen da guztiak toki guztietatik pasatuaz. Frontisean, ezker pareteean eta errebotean aritzen gara pilotan.

Zein da egitasmo honen helburua?

Zalantzarik gabe emakumeek kirola eginez ongi pasa ahal izatea da helburu nagusia. Bestalde, aipatu behar da proiektu osoaren helburua emakumea pilota mundura inguratzea dela eta Tolosan behintzat hori lortu da.

J.G.

Horrelako proiektu gehiago aurrera eraman behar direla uste al duzu?

Nik esango nuke jada gero eta gehiago direla emakumeek alor ezberdinak ezagutu ahal izateko aurrera eramaten diren egitasmoak. *Emakumea Pilotari*ren bidez, adin guztietako emakumeek pilotan jardun dezakete eta horrek beste eragin bat ere badu. Hau da, gazteek ikusten badute helduek egiten dutela, beraiei ere barruan nolabaiteko gogo bat sortuko zaie agian eta horrela gero eta emakume gehiago ikusi ahal izango dugu kirola egiten.

Ezberdintasun handia al dago haurrekin lan egitetik emakumeekin lan egitera?

Baietz esango nuke. Haurren kasuan derrigorrezko jarduerak izaten dira askotan eta emakumeen kasuan bere gogoz etortzen dira. Horrek asko errazten du nire lana. Horrekin ez dut esan nahi haurrekin lan egitea zaila denik baina bakoitzaren jarrerak asko baldintzatzen du.

Maila pertsonalean, zer nolako esperientzia ari da izaten zuretzat?

Ona. Adin horietako emakumeekin lan egiten dudan lehen aldia da eta oso gustura nago beraiekin. Lan talde polita osatzen dugu. ◂

EUSKARA ▸

Korrika batzordearen bilera, gaur

Martxoaren 22an abiatuko da Karrantzatik XV. Korrika. Hori dela eta, batzordeak sortu dira Euskal Herriko herritan. Gaur, 20:00etan, AEKk deituta korrika batzordearen bilera egingo dute Tolosan. Batzarra Lizardi elkartean burutuko dute. Hala, antolatzaileek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte ekitaldian parte hartzeko.

GIZARTEA ▸

Hiribusean zenbait aldaketa gaurtik aurrera

Bihartik aurrera hiribusak bi aldaketa izango ditu. Alde batetik, 13:00ean eta 16:30ean izango dira aldaketak, ordu hauetan ohiko ibilbidea egingo baitu autobusak. Bestetik, autobusaren atseden ordua bihartik aurrera 18:00etan izango da.

TELEFONOAK ▸

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.
- **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- **Asteasu.** Medikua: 692423
- **Baliarrain.** Medikua: 889003
- **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- **Bidegoian.** Medikua: 681134
- **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- **Orendain.** Medikua: 655595
- **Orexa.** Medikua: 682228
- **Tolosa.**
  - Anbulatorioa, larriald:461111
  - San Esteban: 006800
  - Gernikako arbola: 006900
  - Amarozko dispen.: 672637
  - Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - DYA: 672536
  - Gurutze Gorria: 674888
- **Villabona.** Anbulat.: 006970
- **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.
- Renfe: 902 24 02 02
- Donostiako autobusa: 361740
- Tolosaldea bus: 650621
- Leitzaran autob.: 948 221015
- Taxia: 670420
- Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.
- Ertzaintza: 538820
- Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- Tolargi: 650016
- Iurramendi egoitza: 670325
- Tolosa gasa: 675320

EKONOMIA ▸

Bi pabilioi berri inauguratu ditu Diva SAT enpresak

Aurreko eraikina txikiegi geratu zaio Tolosako pentsu eta hazi enpresari; hori dela-eta Apattaerrekara joan da

ESTI EZEIZA

Bi lantegi berri inauguratu zituzten joan den igandean Apattaerreka industrigunean. Bata, Diva S.A.T izenpean, eta bestea Juan Iguaran S.L. renean. Biak ere familia berdinekoenak dira, Tolosa eta Albiztur bitarteko errepidean dagoen Diva S.A.T. izen bereko enpresaren zati dira. Hauek, pentsu eta haziekin egiten dute lan.

Juan Iguaran, lantegi zaharreko nagusiaren 63. urtebetetzea zela aprobetxatuz, «betiko» bezero, langile eta lagunak gonbidatu zituzten inaugurazio ekitaldira. Hala, 300 lagun inguru bildu ziren pabilioi berrian, trikitixa, bertsolari eta herri kirol saioaz gozatzeko.

Jaxone Iguaran, lantegiko nagusiaren alabaren esanetan, «gauza berriak egiteko txikiegia geratu zaigu aurreko eraikina». Hori dela eta, pabilioi berrietako bat biltegi bezala erabiliko dute, eta bestean pentsu mota ezberdinak lortzeko nahasketak egingo dituzte. Azken honetarako sistema berri bat ipini dute, non haziari erosleak aukeratutako bazka nahasten dioten. Orain arte, baserritarrak berak nahastu behar zion alpapa deshidratatua, baba edo bestelakoa, haziari. Baina orain Diva enpresan bertan egiten dute.

300 lagun bildu ziren igandeko inaugurazio ekitaldian. N. LIZARTZA

Inaugurazio ekitaldia egiteko, bi pabilioiak bukatu arte itxaron dute; hala ere, lehenagotik hasita zeuden bertan lanean. Bestalde, Albiztur biderako errepidean kokatuta dagoen lantegiarekin ere jarraitzeko asmoa dutela adierazi dute nagusiek. Nahiz eta denborarekin gauzak eraikin berrira eramaten joango direla gaineratu. Denera, 25 langile inguruk dihardute lanean bi enpresa hauetan, baina hazkundea dela eta, jende gehiagoren beharrean daude orain. Bestalde, orain arte, Euskal Herrian zehar saltzen zituzten beraien produktuak, eta sistemaren berrikuntza dela eta, Frantziara ere zabaldu dute merkatua.

Batez ere ardientzako pentsua saltzen dute Divakoek. Honela, erosle bakoitzak aukeratzen du zer nolako pentsua nahi duen, gehitu beharreko osagaiak zehaztuz.

GIZARTEA ▸

Saharrarekiko ahaidetasuna erakutsiz

E. Ezeiza ▸ 30 ute bete ziren atzo Saharar errepublika aldarrikatu zenetik. Tolosak herrialde honekiko duen ahaidetasuna erakutsiz, plaka bat ipini zuten atzo goizean Emeterio Arrese plazan. Bertan izan ziren Jokin Bildarratz alkatea, Ana Trapero Tolosaldea Saharrarekin elkarteko lehendakaria eta Badadi Frente polisarioko ordezkaria. Azken honek eskerrak eman zizkien Tolosaldeko herritarrei, «honelako ekintzek borrokan jarraitzeko indarra ematen baitigu». E. EZEIZA

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irudietan. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZako webgunean ikusgai dira aurtengo Inauterietako irudirik onenak. Sartu eta gogoratu zer ikusi zen kalean egun horietan.

iragarki laburrak ▸

SALGAI

Autoa. BMW M3a. Urdina, 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro liburuarekin. 18ko llantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. Interesatuek deitu ondorengo telefono zenbakira: 943 65 41 43.

ALOKAIRUA

Pisua. Lekunberrin 60 m2ko pisua alokatzen dut. Egongela, bainugela, sukaldea eta bi logelekin. Telefono zenbakia: 679 20 14 60.

LANA

Garbitzaileak. Garbiketa, sukaldeetarako, jangeletarako, eta eskoletarako. Interesatuek deitu 943 44 48 66ra.

Gidaria. Erakunde publikoetarako gidariak behar dira. Interesatuek deitu 943 44 48 66 telefono zenbakira.

ANOETA ▸ TEKNOLOGIA

Herritarren Txartel Elektronikoa bultzatuko du Udalak

Interneten bitartez hainbat administrazioekin harremanak burutzeko aukera ematen du Izenpek kudeaturiko txartelak

IMANOL GARCIA

Herritarren Txartel Elektronikoa (HTE) aurkeztu zuten atzo Anoetako KZgunean Fidel Azpiroz alkateak eta Txomin Alkorta Eusko Jaurlaritzako KZgunea proiekturaren zuzendariak. Udalak txartel hori bultzatuko du eta Azpirozen esanetan, «gauza berria eta pauso interesgarria da; udaletxera joan gabe, internet bitartez Udalarekin zerikusia duten edozein kontsulta egiteko».

Txomin Alkortak, bere aldetik, herritarrak txartel honen erabilerara «ohitzen» joatea komeni dela esan zuen eta helburua udalek, Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ematen dituzten zerbitzuak txartelaren bidez gauzatzea dela. «Edozein udaletan, handi nahiz txiki, aukera hori izatea garrantzitsua da», zioen Alkortak. Anoetari dagokionez, berritasuna, kiroldegiko erabiltzaileentzako ere zabaltzen dela da.

Txomin Alkorta eta Fidel Azpiroz, atzo, aurkezpenean. I. GARCIA

Ikastaroak

Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak sorturiko Izenpe ziurtapen-erakundeak kudeatzen du HTE. Txartela eskatzeko udaletxean, udal liburutegian edo Abraham Olano kiroldegian egin daiteke. 16 urte baino gehiago dituztenek eskura dezakete, etorkizunean gazteagoek ere izatea posible izango bada ere. Horretarako nortasun agiria beharrezkoa da. Europako Batasuneko atzerritarrak AIZ eta indarrean dagoen identitate-agiri bat aurkeztu behar du eta Batasunetik kanpokoak egoitza-txartela erakutsi beharko du.

Txartela erabiltzen ikasteko ikastaroak egingo dira KZgunean urtean zehar. Komeni da ikastaroetara joan aurretik txartela eskatuta izatea. Ordubeteko ikastaroak izango dira eta lehenengo aukerak ondorengoak dira: martxoaren 29an, apirilaren 12an, apirilaren 26an eta maiatzaren 10ean. Ikastaroetako parte-hartzaileei irakurle digitala oparituko zaie.

ZERTARAKO ERABILI TXARTELA? ▸

ZERBITZU TELEMATIKOAK
- Udal-errolda kontsultatu.
- Udaleko tasak eta zergak kontsultatu.
- Udal-ordainagiriak kontsultatu.
- Errolda agiri elektronikoa eskatzeko.

UDAL LIBURUTEGIA
- Liburutegiko bazkide bezala erabiltzeko, maileguetarako eta erreserbak on-line egiteko.

KIROLDEGIA
- Kiroldegiko instalazioetan sarrera baimentzeko bai bazkideei eta bai ikastaroko parte-hartzaileei.

KZGUNEA
- KZguneko saioari ekiteko.

OGASUNA
- Aitorpenak aurkeztea, ziurtagiriak eskatzea, zerga-informazioa, zorrak...

DIRU LAGUNTZAK
- Foru Aldundiko hainbat esparruetako diru laguntzen berri jakitea.

VILLABONA ▸ ERREBOTEA

Alejo eta Mitxelena, Gipuzkoako txapeldunak

Billabonatarrek Aizpurua eta Rezola zubietarren aurka 40-27 irabazi zuten

I. GARCIA

Jon Alejo eta Xabier Mitxelena Behar-Zanako billabonatarrek Gipuzkoako Joko Garbi Txapelketa lortu berri dute. 40-27 irabazi zuten Joseba Aizpurua eta Ugaitz Rezola zubietarren aurka. Markagailuan aurretik izan ziren partida osoan, baina 25 tanto lortuta zituztela apurtu zuten partida. Orduan 10 puntu segidan egin zituzten eta partida bereganatu zuten.

Sei bikote hasi ziren txapelketan, lau Zubietakoak eta bi Behar-Zana elkartekoak. Azken bi hauek iristen ziren beti finalera. Aurten, baina, Sergio Sanchez eta Igor Alejok ezin izan zuten ligaxka burutu, Sanchez lesionatu baitzen. Aurtengo txapelketak berezitasun txiki bat zuen gainera, Villabonako bikoteei dagokionez. Hain zuzen, bikotekideak aldatu zituzten aurtengoan. Sanchezek eta Jon Alejok eta Mitxelenak eta Igor Alejok osatu ohi zituzten bikoteak. Sanchezek eta Jon Alejok irabazi ohi zituzten txapelketak eta aurten aldatzea erabaki zuten. Aurtengoan, Sanchezek eta Igor Alejok beste biei ligaxkako lehen partidan irabazi zioten. Baina, azkenean finala ezin izan dute jokatu elkarren artean. Hala ere, Behar-Zanako bikote batek lortu du berriro ere Gipuzkoako txapela.

Errebote Txapelketa

Behar-Zanakoak berriro itzuliko dira pilotalekuetara Aste Santuaren ondoren. Orduan, Euskal Herriko Bigarren Mailako Errebote Txapelketan hartuko baitute parte. Joko Garbin bikoteek jokatzen badute ere, hemen bost jokalarik hartzen du parte talde bakoitzean.

ZIZURKIL ▸

Herriko ura berriro da edangarria

Zizurkilgo Udalak zabaldu berri duen bando batean adierazten duenez, berriro edangarria da herriko ura. Hilaren 20ko data zuen bandoaren bidez herriko udal sareak hornitzen duen ura ez zela edangarria jakinarazi zuen Udalak. Oraingo bandoarekin debeku hori kentzen du eta herriko ura edan daitekeeka zehaztu du Udalak. Beraz, edozertarako erabili daitekeela adierazi du Udalak atzoko bandoan.

VILLABONA ▸

Behar-Zana elkartearen urteko asanblada

Villabonako Behar-Zana Kirol Elkarteak datorren igandean, martxoak 4, aurtengo ohiko asanblada orokorra egingo du. Lehenengo deialdia 09:30ean izango da eta bigarrena 10:00etan. Behar-Zana elkarteak bidalitako ohar batean zehazten denez, Elkarteko Zuzendaritza Batzordetik landuko diren gaien garrantzia dela eta asanbladan bazkideen parte hartzea eta presentzia eskatzen dute.

ANOETA ▸

Aerobik talde berria osatu nahi dute kiroldegian

Anoetako kiroldegian aerobik talde berria atera nahian dabiltza. Ikastaroa astearte eta ostiraletan izango litzateke, 15:30etik 16:30era bitarte. Orain hasiko litzateke eta ekainaren amaierara arte iraungo luke.

Irurako Ikastola
• (2-9 URTE)
• Lehen Hezkuntza
'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'
San Migel, 5 • 20271 IRURA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

ANOETAKO HERRI IKASTOLA
• Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
• Kalitatezko hezkuntza euskalduna
• Eguneratua eta irekia
• Denen artean bultzatua eta zuzendua
MATRIKULA EPEA: Otsailaren 26tik Martxoaren 9ra
Matrikulazio Ordutegia:
✆ 943 65 46 13-65 29 32
9:00-13:00 - 15:00-18:00
anoeta@ikastola.net

AMEZKETA ▸ EUSKARA

Korrika antolatzeko taldea handitu nahian

Bihar bilera egingo dute, talde honetan «euskararen alde egin nahi duen edozein» bil daitekeela gogoratuz

ERREDAKZIOA

Korrika XV gure eskualdeak zeharkatuko dituela kontuan izanik, Amezketan batzorde bat osatzeko asmoa azaldu dute. «Ekitaldia behar bezala antolatzeko talde handia behar da lanean», gogoratu dute antolatzaileek. Hala, balioanitzeko gelan bihar bilera egingo dute 20:00etan. Lanerako prest dagoen Amezketako jendea animatu nahi izan dute honetarako, eta, bada Korrikari laguntzu nahi dionik. Batzorde honen egitekoak bi izango lirateke: herrian Korrikaren zein AEKren berri zabaltzea (horretarako zenbait ekintza antolatuz); eta, «jakina, ahal den neurrian» Korrikarako diru bilketan laguntzea.

Aurtengo Korrikako logoa. HITZA

Aurreko Korrikan «lanean aritu ginenetako batzuk pentsatu dugu merezi zuela deialdi ahalik eta zabalena egitea»; ahalik eta lagun gehienei Korrika batzordean lan egiteko gonbitea luzatzea, alegia. Honen bidez, «Amezketako talde, elkarte zein erakundeetan partaide zaretenongana iritsi nahi genuke. Zuek batzordean parte hartzea nahi dugu».

Dena den, inongo talde, elkarte edo erakundetan parte hartzen ez duenik baldin bada, «horrentzat ere bada gonbitea»: izan ere, «euskararen alde egiteko gogoa duen edozein bil daiteke taldera».

ALEGIA ▸ GIZARTEA

Langaurreko komisioak bukatutzat eman ditu bere eginbeharrak

Parkeko herri babarrun jateak 1978tik antolatu zituen urte askotan

ERREDAKZIOA

«Gaurtik aurrera, Langaurreko komisioa bukatutzat uzten dugu». Alegiko Langaurreko Komisioaren adierazpena jaso du HITZA egunkariak. 1978ko irailaren 24an Alegian hainbat urtetan ohikoa izan den herri babarrun jatea, edo Langaurre eguna egiten hasi zen talde hau. Geroztik, 1995era arte urtero ospatu dute egun hau, «baina zenbait arrazoirengatik ez dugu berriz ere antolatu».

Aspaldiko babarrun jatean. HITZA

Aurten, 10 urte pasa ondoren «Langaurre komisioa bukatutzat uzteko garaia heldu delakoan gaudenez, Alegiko herritar guztiei adierazi nahi diegu: baxera eta sukaldeko tresnak udaletxeko gela batean daudela herritarren zerbitzurako», eta bestetik, «gure kontuan genuen dirua bi talderi eman diegula: herriko behartsuei (Alegiko Caritas taldearen bidez), eta Tolosaldeko presoen senideei (Senideak taldearen bidez)».

IKAZTEGIETA ▸

Martxoaren 9an afaria antolatu dute Herrigintzan

Emakumeen nazioarteko eguna martxoaren 8an dela kontuan izanik, gure eskualdeetan hainbat ekitaldi berezi prestatu dituzte. Besteen artean, Ikaztegietako Herrigintza elkartean martxoaren 9rako afari bat antolatu dute. «Gurekin egun hau ospatu nahi baduzue, eman izena Toki alai tabernan, martxoaren 7a baino lehen», diote antolatzaileek. 21:00etan izango dute afaria, eta irekia izanik, gonbitea nahi duen guztiarentzat izango da.

TOLOSA ▸

Gaur ezker abertzaleak deituriko bilera

Gaur, asteazkena, 19:30etik aurrera ezker abertzaleak deituriko batzarra izango da. Tolosako Kultur Etxean bilduko dira bilera egiteko eta, bertan jorratuko dituzten gaien artean egungo Euskal Herriko egoera politikoa eta hurrengo maiatzeko udal hauteskundeak izango direla adierazi dute arduradunek, besteen artean. Bilera honetara herritarrak eta eskualdekoak parte hartzera gonbidatu nahi dituzte ezker abertzalekoek.

ALEGIA ▸

Mercaderren argazkiak jubilatuenean

Alegiko jubilatuen tabernan oraingoan argazki batzuk daude ikusgai: Tolosako Joseba Mercaderrenak dira, eta martxoaren 11 arte izango dira bertan ikusgai, zein salgai. Zuri beltzekoak dira batzuk, eta besteak benetako koloretan egindakoak: guztiak ere paisaiak dira, inguruko paisai ezagunak gainera: Urkizukoak, Leitzarangoak, Hondarribikoak eta Zarauzkoak, hain zuzen. Argazki hauez gain, bada triptiko margolan berezi bat ere: zuria eta gorria erabili ditu honetarako, eta tarteka dapositiba batzuk ditu itxatxirik.

Argazkietako bat. JOSEBA MERCADER

BALIARRAIN ▸

Agenda 21eko bigarren herri batzarra

Larunbatean Baliarrainen 2. herri batzarra egingo dute. 16:00etan izango da Kultur Gelan, Baliarraingo Udalak deituta, Agenda 21 prozesua dela-eta osatu den ekintza planaren 1. zirriborroa aurkezteko eta herritarren artean antzeman diren hutsuneei konponbideak bilatzen saiatzeko. Plan hau herritarren iritziak, eta herri batzarrean esandakoak ere kontuan hartuz osatu da. Ekintza plana irekia da: beharrezkoa da herriarentzat lehentasunezkoak diren ekintzak zein diren jakitea eta Udalak herritar guztien ekarpenak jaso nahi ditu. Bilera aurretik ekintza plana irakurri nahi duenak, ikusgai izango du udaletxean. Interneten ere izango da, www.tolomendi.net/agenda21 webgunean.

Komunikabide batek pertsona bat behar du
asteburuetan
argazkiak ateratzeko.
Interesatuek deitu
661 678 817ra

IBARRA ▸ KULTURA

Liburutegia, puntaren puntan

Juanjo Alustizak, liburutegiko arduradunak, 2006. urteko balantzea aurkeztu du, balorazioa egin eta zerbitzua hobetzeko asmoz





Liburutegiko bezeroen kopurua eta mailegatutako materialaren grafikoak. HITZA

ASIER IMAZ

Goizeko hamarretako kafesnea hartu eta ateak zabaltzen ditu Juanjo Alustizak. Eguneroko prentsa bere lekuan jarri, begiraturen bat eman gainetik eta eskuetan baso beroa duela aurreko egunean airean geraturiko lanak egiten hasten da bere aulkian eserita. Ibarrako liburutegia zabalik dago.

13 urte daramatza Juanjok Ibarran lanean, alegiarra izan arren bertakoa sentitzeko nahikoa denbora, izan ere herriko askok baino hobeto ezagutzen du Ibarra eta bere bilakaera. Denbora honetan liburutegian ere aldaketa handiak izan dira, kokalekutik hasi eta barne funtzionamenturaino. Garai batean liburuak bakarrik aurkitzen baziren, gaur egun CDak, bideoak, DVDak eta interneta ere aurki dezakete. «Hau informazioa lortzeko lekua da, eta ondorioz interneta eta liburutegia elkar loturik doaz».

2006. urteko balantzea aurrean duela, datuen nondik norakoa aztertzen hasi da Alustiza. «Bazkideek gora egin dute; 169 gehiago daude orain, denera 668 irakurle txartel. Baina 4.000 biztanle inguruko herri batetarako ez dira horrenbeste». Hala eta guztiz ere, «aktiboak direla ezin ukatu, urtean 12.251 mailegu egin baitira».

Eskaintzarik ez balitz egongo ez lirateke horrelako daturik egongo, eta eskaintzaz galdetuta, «hilero material berriena» erosten saiatzen dela aitortzen du. «6 edo 8 DVD eta CD erosten ditut, 20 bat liburu ere bai. Gero boletin batean berrikuntzak jartzen ditut, baita Blogean ere». Jendearen erantzuna kontutan hartuta, «nabarmentzekoa da ikus-entzunezko materialek izan duten arrakasta, DVDek batez ere, jadanik mailegu guztien %61 baitira». Irakurleek ere 2006an gora egin dutela diote datuek, 817 liburu gehiago, gehien gazte eta haurrak hartzen dituztelarik. Urteko libururik irakurriena berriz, euskarazko eleberri bat izatea «sorpresa» bat izan dela aitortzen du Juanjok, Jon Maiaren

Juanjo Alustiza lanean. A.IMAZ

Riomundo. Harro esaten duen datua da hau, bera liburutegian dagoen denboran ez baita euskarazko libururik izan inoiz urteko irakurriena. «Best Seller-en idazleak izan dira autore irakurrienak, Dan Brown batez ere, baina lehen aldiz izan da euskal liburu bat lehen irakurriena». Gorakada honetan, jendeak behar dituen liburuak lortzeko dagoen aukerak kontutan hartu beharko lirateke, izan ere, «norbait liburu baten izenaz etortzen bada, behar duela esanaz, bi aukera daude; lehena beste liburutegiren batetatik ekartzea, honetarako liburutegi arteko mailegua dago Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan, eta bigarrena, guk erostea».

Haurrentzat ere aukera

Haurrentzat Ibarrako liburutegiak duen txokoa sartu eta jarraian ikusten da. Parke txiki baten modura, lurrean jolastu eta marrazkiak ikusteko aukera dute bertan. Hauentzat ere ekitaldiak antolatzen saiatzen dela ezin dezake ukatu Alustizak, «iaz txikienentzat ipui kontalariak ekarri genituen, 6 izan ziren guztira. Erantzuna ona izan zen, 50 ume inguru batez beste. Irakurketa bultzatzeko eta liburutegia ezagutzeko balio dezakeela uste dugu».

Zerbait ahaztu ote zaigun galdetuta, Blog-a eta entzunezko liburuetaz hitz egiten du. «Entzunezko liburuak orain erosi ditut, CD formatoan dauden nobela klasikoak dira; Kafka, Moby Dicken egilearenak...». Bloga berriz, «bi astean behin berritzen dut. Bertan jendeak parte har dezake, dagoen materiala ikusteaz gain, iradokizunak, etabar sar ditzake, edo niri hona ekarri nik sartzeko».

Alustizak amaitu du kafesnea, indar berritu da egunari aurre egiteko. Datuak datu, goiza besterik ez da eta egun guztia du gaurko lana amaitzeko. Agian liburuak txukunduko ditu hemendik aurrera edo Marxismoaren inguruko liburuentzat apal berriak erosi. Izan ere, «kritika batzuk» jasotzen ditu, noizean behin bada ere.

LIZARTZA ▸

Bertso afaria Txirrita Elkartean

Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso izango dira martxoaren 3an, larunbatean, Txirrita Elkartean ariko diren bertsolariak. Azken 14 urteetan bezala, urteroko bertso afaria antolatzerakoan azpeitiarra eta zarauztarra aukeratu dituzte afalosteko bertsoetarako. 60 bat lagun elkartzea espero dute antolatzaileek, horretarako herritarrei eta kanpokoei deialdia egiten zaie ea urtero bezala aurten ere elkartea betetzen duten.

IBARRA ▸

Gaztetxeko belaunaldi guztiei deia

Ibarrako Gazte Asanbladak Gaztetxetik pasa diren belaunaldi guztiei deialdia luzatzen die gaur arratsaldeko 19:30erako. Batzar zabala egin nahi dute denen artean martxoak 31n egingo den jaia antolatzeko. Bilera Gaztetxean egingo da denen ideiak entzunaz ekitaldia prestatzeko.

TOLOSA ▸

Inauterien balantzerako bilera

Jai batzordeak gaur arratsaldeko 19:30erako bilerara deitu du. Bestalde karroza eta konpartsen lehiaketan parte hartu dutenek ostiral honetan izango dute azken eguna dieta jaso ahal izateko. Horretarako datu orria eta argazkia aurkeztu beharko dute Aranburu jauregian.

BASABI
Higiezinen Agentzia
Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Abaltzisketa. Sei etxe atxiki: sukaldea, egongela, bainugela eta terrazarekin, lehen solairuan; hiru logela, batek bainua du, bainugela eta bi terraza bigarren solairuan; bi autorentzako garajea eta txokoa beheko solairuan.
Alkiza. Familia bakarreko etxea, eraikitako 300 m2, 4.000 m2-ko lur-saila etxebizitzarekin eta beste 4.000 m2, bi partzelatan.
Anoeta. Duplex etxebizitza estreinatzeko salgai. 4 logela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza eta garajea aukeran.
Asteasu. 1.050 m2-ko bi solairuko eta 250 m2-ko solairu artea duen pabilioia salgai edo alokeran. Mota guztietako tresnaz eta hobekuntzekin hornitua.
Beasain. 45 m2 erabilgarriko etxebizitza eta lokal komertziala salgai.
Berastegi. 100 m2-ko bi solairuko borda salgai, moldatu beharra, 75.000 m2-ko lur-saila, 35 eta 50 urteko laritz pinuarekin.
Donostia. Saguesen, 70 m2-ko duplexa salgai, berritua, igogailuarekin eta Groseko hondartzara ikuspegiekin.
Errioxa. Hormillan, Naxeratik 3 Km-tara, 11 etxe atxiki salgai, beren lorategiarekin eta urbanizazioko igerilekuarekin (151.000 euro).
Ibarra. 85 m2-ko etxebizitza salgai, kanpokaldera, bizitzera sartzeko, garajea aukeran.
Lasarte. Hirugarren solairuan, 65 m2 erabilgarriko etxebizitza salgai Oztaran kalean. Kanpoaldera.
Lizartza. Eraikuntza berrikoak, 350 m2-tik hasita, 14.000 m2 pabilioi salgai.
Naxera. Bost solairu, igogailua, txokoa eta terraza zabaleko azken etxearen eskaintza eta salmenta
Tolosa. Iurre, 98 m2ko etxebizitza
Lizartza. Eraikuntza berrikoak, 350 m2-tik hasita, 14.000 m2 pabilioi salgai.
Lizartza. Eraikuntza berrikoak, 350 m2-tik hasita, 14.000 m2 pabilioi salgai.
Lizartza. Eraikuntza berrikoak, 350 m2-tik hasita, 14.000 m2 pabilioi salgai.
Lizartza. Eraikuntza berrikoak,

LEITZA ▸ NATURA

ERREDAKZIOA

Zuhaitz zaharren etorkizuna

Zuhaitz zaharrak eror ez daitezen ingeles batzuk eta Leitzako hainbat herritarrek kimatze zikloari eutsi diote

Ingeles bat motozerrarekin zuhaitza kimatzen. HITZA

Zuhaitz zaharrak nola kimatzen zituzten ikusteko ingeles talde bat aurreko astean herrian izan bazen ere, haien eta zuhaitzen arteko istorioa lehenago hasi zen, lehengo urtean, hain zuzen ere, Jose Migel Elosegi eta Juan Mari Zabaleta Ingalaterrara joan zirenean. Azken egunetan zuhaitzak albiste bihurtu dira Leitzaldean, eta ez soilik duela 10 egun ingeles batzuk herriko zuhaitz zaharrak ikusteko egindako bidaiarengatik. Hau gutxi balitz, egun hauetan eta martxoaren 16a bitarte, zuhaitz zaharren inguruko erakusketa egongo da ikusgai udaletxean, non zuhaitz zaharren inguruko hainbat gauza azaltzen diren, azalpenak gaztelera hutsean aurkezten dituzten arren.

Joan den astean ingeles hauek egindako bisita teknikoa izan zen. *Veteran trees* eta *Woodland trees* taldeetako lagun hauek London inguruko zenbait parke zaintzen dituzte, eta bertan 400 urtetik gorako pago bat baino gehiago daude. Urteekin zuhaitz hauek hartzen zuten pisuaren ondorioz erori egiten zirela ikusita, irtenbideren bat bilatzen hasi ziren eta hau izan da leitzar hauen eta ingeles hauen hartu-emanaren arrazoia, eta hemendik hara joan ziren bezala, bidenabarrean handik honera etortzeko aitzakia.

Zuhaitzen garrantzia

Ingeles hauen kezka, ordea, Leitzako herritar hauek ere badute, zuhaitz zahar eta handiak kimatu gabe pisuaren ondorioz erori egin baitaitezke. Arazo hau aztertzeko Leitzako mendiak toki paregabean bihurtu ziren joan den astean: Juan Mari Zabaleta, Jose Migel Elosegi, Gabriel Saralegi eta Migel Barriola han izan ziren, ingeles hauekin eta Euskal Herriko arbolazain elkarte bateko (Trepalari) zenbait kiderekin.

Zuhaitz zaharrak gaur egun bereziki arrazoi batengatik galtzen dira: zuhaitz hauek guztiak garai bateko basoa lantzeko moduaren ondorio dira, izan ere duela gutxira arte sutarako egurra lortzeko kimatzen ziren. Honetaz gain eta teknika beraren bidez —zuhaitzak 1 edo 2 metroko altueran moztu eta hortik gora sortzen ziren adarrak 10, 15, 20 urteko zikloarekin kimatu— zuhaitz hauek ere ikatzarako erabiltzen ziren.

Etorkizuna

Gizartearen garatzearekin batera, horrelako erabilerak galdu egin ziren eta baita kimatzeko zikloa ere. Honen ondorioz adarrak moztu ordez etengabe luzatzen dira, zuhaitzetan ikaragarrizko desorekak sortuz. Hau dela-eta zuhaitz zahar guztiak 100-400 urte bitartekoak, pixkanaka galtzen ari dira.

Aurreko astean egindako lanaren ondorioak aurrerago ikusiko dituzte. Zuhaitzak kimatzen ibili ziren, batzuk Leitzako erara, beste batzuk ingelesak kimatzen dituzten bezala. Horretarako aizkora eta motozerra erabili zituzten, ezagutzen dituzten bi moduak proban jartzeko eta maiatzean, lorea ateratzen hasten denean, ikusiko dute zuhaitz hauek nola erantzuten duten.

ZUHAITZAK ▸

MANTENTZEKO ARRAZOIAK

Ondarea.
Gure iragan hurbila eta urrunaren islada dira .
Paisaia.
Sortzen duten paisaia kalitate handikoa da eta honek jende asko erakartzen du.
Erreserba genetikoak.
Oso zaharrak direnez erreserba genetikoak dira, eta garai bateko baldintza klimatikoen islada.
Animalien gordeleku.
Ugaztun, txori eta insektu anitzen gordeleku dira: saguzaharrak, lepatxuriak, okilak, urubioak...Gaur egun, animalia horietako batzuk desagertzeko zorian daude..

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK
URTEURRENAK
ESKERTZAK
Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da
HITZAK GIPUZKOAN
120.000 IRAKURLE
ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

urteurrenak ▸

I.urteurrena

Trinidad Muñoa Arratibel

(2006ko otsailaren 28an hil zen)

Beti izango zara
gure artean

Etxekoak

TOLOSAN, 2007ko otsailaren 28a

tolosaldeko eta Leitzaldeko

hitza

ARGITARATZAILEA. Tolosa Herria Hedabideak S.L.
LEGE GORDAILUA. SS-0398-03
ZUZENDARIA. Noelia Lataburu
EGOITZA NAGUSIA. Araba etorbidea 5, atzea, Tolosa
TELEFONOA. 943 65 56 95 **FAXA.** 943 65 00 18
LEITZA. Herriko plaza 1. 687 410 118
E-POSTA. tolosaldean@tolosaldekohitza.info
WEBGUNEA. www.tolosaldekohitza.info

TOLOSA HERRIA HEDABIDEAK S.L.KO KIDEAK:
BERTAKO HEDABIDEAK
eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko 77 gizarte eragile

HITZA-K BAI EUSKARARI

Zuzendariordea. Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea.** Jon Mujika. **Publizitatea.** 661 678818. tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info.
Tolosa. 687 410082 - 687 410033. tolosa@tolosaldekohitza.info. **Villabona-Aizt.** 687 410022. villabona-aiztondo@tolosaldekohitza.info.
Anoetaldea. 687 410022 anoetaldea@tolosaldekohitza.info. **Ibarraldea.** 687 410032. ibarraldea@tolosaldekohitza.info.
Alegialdea. 687 410034. alegialdea@tolosaldekohitza.info. **Leitzaldea.** 687 410118. leitzaldea@tolosaldekohitza.info.

ESKUALDEKO EGUNKARIA ▸ 2007ko otsailaren 28a, asteazkena ▸ V. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK
udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil
Gipuzkoako Foru Aldundia

GAURKO EGURALDIA goizez arratsaldez beroena **14** hotzena **11**
BIHARKO EGURALDIA goizez arratsaldez

HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...) **902 82 02 01**

AGENDA ▸

DEIALDIAK

Aduna. Sukaldaritza ikastaroa antolatu du Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak. 20 orduko iraupena du eta martxoaren 3an hasiko da. Larunbate-tan izango da, 10:00etatik 12:00etara, Txulobi elkartean. Izen-ematea, Mankomunitateko bulegoetan edo 943 693930 telefono zenbakian.
Ibarra. Bizi nahi jubilatu elkarteak irteera antolatu du Bilbora, martxoaren 10erako: Montenegro jatetxean bazkaria, zozketa eta dantzaldia (27 euro, ez bazkideek 29). Izen-ematea zabalik.
Tolosa. Ezker abertzalearen batzarra Kultur Etxean 19:30ean. Gaiak: egoera politikoa eta maiatzeko hauteskundeetarako prestatutako plangintza.
Villabona. Erniobea BH Institutuak gurasoei bere zerbitzuak eta eskaintza aurkezteko hitzaldia eskainiko du Arratzainen 18:00etan.
Zizurkil. Jesusen Bihotza Ikastola ezagutu eta haren zerbitzuei buruzko informazio zabala jasotzeko aukera 17:15ean.

ZINEMA

Alegia. Gaztetxean. 21:30ean *Gracias por el chocolate* film frantziarra ikusgai, 2000 urtekoa eta zuzendaria Claude Chabrol da. Mika, pianista ezagun batekin ezkonduta dago.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Irurtzun. Gastearena, M. Amaia kalea, 4. 112.
Tolosa. Santa Maria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.

IRRATIA

Txolarre irratia (107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, elkarrizketak, , agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
20:00-21:00. *Irauli uhinak.*
21:00-23:00. *Bide okerretik.*

▸ **HITZAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.**

Oargikoen irteera Gavarnie-ra

TOLOSA ▸ Inauterietako atsedenaldiaren ostean, Oargi mendi elkarteak bere irteerei ekingo die berriro. Oraingoan, Gavarnie-ra (Frantziako Pirineoak) irteera antolatu du. Martxoaren 2an, ostiralarekin, abiatuko dira eta igandean, martxoaren 4an, egingo dute buelta. Granje de Holle izeneko aterpean hartuko dute ostatu mendizaleek eta Vignemale eta Pimene mendiak igoko dituzte. Bertara joateko interesa duenik 637 830380 telefono zenbakian lor dezake informazio gehiago. HITZA

AGURRAK ▸

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.

hitza agurren tartea

Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

URTE ASKOAN
Josu (Baliarrain).
Amona, osaben eta izeben partetik zorionak.

gure etxean
euskara
gure etxean
berria

Egin zaitez harpidedun
1. Kioskoan baino %10 merkeago.
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat opariak: zozketak eta kupoiak astero, eta urte osoan erabiltzeko hainbat deskontu.
4. Promozioetan abantailak: BERRIAk ateratzen dituen liburuak, diskoak eta abar merkeago.

Orain eskaintza berezia
Otsailaren 28a baino lehen harpidetuz* gero,
oparia zuretzat

2 LAGUNENTZAKO BAZKARI EDO AFARIA
zuk aukeratzen duzun hauetako sagardotegi batean

GIPUZKOA **LARRE GAIN** ✆ 943 555 846 HERNANI
GIPUZKOA **OTSUA-ENEA** ✆ 943 556 894 HERNANI
BIZKAIA **IBARRA** ✆ 946 731 100 ZORNOTZA
ARABA **ITURRIETA** ✆ 945 445 385 ARAMAIO
NAFARROA **MARTITXONEA** ✆ 948 604 607 ALDATZ

Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

* Urte osoan eguneroko harpidetza izan behar du

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**